

# LIBURUAK

## IKAS-LIBURU EDERRA

### IKAS-LIBURUAK

Gure ikastolak arazo asko ta sakonak daukez. Ez da gaur txikiena erakunde barrietan zor jaken leku egokia billatzea: Kontzeillu Orokorragazko zer-ikusia, buru-jabetza barriagaz izango dabena, Lege zarren arazo orretan nondik eta zelan sartu, diru-laguntza nondik eta nora lortu, gurasoen al-karteakaz norainoko artu-emona, andereiñoak zelan gertatu, irakasteko agiri berik or lanean diarduenak zelan legetu, ta abar.

Baiña ikastolan antxiñako arazoa, betikoa esan geinke, ikas-liburuak dira.

Eta arazo au geroago ta larriagoa da.

Alde batetik irakaskintza-legearen aldakuntzak ei datoz barriro eta nor ausartu laster balioko izango ez diran ikas-liburuak argitaratzen?

\* \* \*

### BITARIKOAK

Ikas-liburuen arlo onetan era bitakoak dira bearrezko: alde batetik euskal-kultureari buruzkoak eta bestetik kultura orokoarrari buruzkoak.

Arlo bi onein alkartzea ondo eginda euken, euren erara, eskoletako liburuak, dana España'ren ikuspegitik ikusten ebela, baiña guk arlo alkartze ori egin barik daukagu: Ez dogu sartzen gure lutelestia (geografia) mundukoaren barruan eta geure ikuspegiz, bardin jazoten jaku kondaira (historia) arloan, antzera erti edo eder lanen kondairan eta beste sail askotan.

Eta ikas-liburuak bear-beareko dira.

\* \* \*

### EUZKADIKO «GEOGRAFIA»

Oraintsu urten da argitara ikas-liburu eder eta zoragarri bat. Euzkadi'ko Geografia dauka izena eta Gregorio Arrien - Iñigo Agirre dira egilleak.

Ikas-liburu ederra benetan: Erri-euskera garbia, ingi egokia, argazki ta marrazki margotsuak eta apairgarriak. 37 ikaskizun eta 170 orrialde guztiz. Lenengo 30 ikaskizun Egoaldeko lutelestia dira eta azkenengo 7'ak Iparraldekoa.

Gure lutelestia edo Geografia ikasi nai dabentzat, bai ikastoletan eta ez gitxiago etxeetan, nekez agertuko da liburu egokiagorik.

\* \* \*

### EUSKEREA

Irakaskintzan arazoa da euskerea bera be. Zein euskera erabili? Gipizkoakoa? Bizkai'koa? Iparraldeko euskalkiren bat?

Erantzuna ez da erreza, baiña, al izan ezkerro, ez da txarrena liburu onek artu dauan bidea: Bizkaitarrentzat bizkaieraz eta gipuzkoarrentzat gipuzkoeraz, argitalpen bi egiñez.

Ez uste izan asko karututen dauanik be, argitalpen bi egin bear onek: lan asko dira bietarako balioko diranak, izkuntzan eta apaingarrietan ez da dana ezbardiña.

Beste alde batetik gauzea ikusita, umeentzat euren euskalkian irakurtea ta ikastea erreztasun aundia da eta umeak dirua baiño beiñagoak dira.

\* \* \*

### KONDAIRA-LIBURUA

Gregorio Arrien'ek berak idatzi dau beste liburu txikiago bat, au be ikastoletarako eta onen gaia Euskalerraren kondaira dala.

Au askoz txikiagoa da eta euskalki bietan eginda dator, bizkaieraz eta gipuzkoeraz liburu bat bera.

Bearrezkoa zan kondaira-liburu au be ikastoletarako eta ikastoletatik kanpora be, asko ziran olako esku-liburu laburra eskatzen ebenak, gure kondairaren laburpena jakiteko.

Eta ordago liburu ori be. Urrengo argitalpenetan asko obetu al izango dala uste dogu.

\* \* \*

### LASTER IRUGARRENA

Ba dago beste gai bat be euskal-kulturaren barruan, jakingarria ta arduragarria: Elertia, literatura.

Gai oneri buruz urten dala uste dot, baiña oraindiño ez dot eskuratu, irugarren esku-liburu eder bat-Aita Onaindia'ren Elertirako ikas-liburu.

Urrengo ZER onetan egin al izango dogu zabalkundea.

Zorionak eta eskerrak A. Fermin eragilleri, laguntzaille ta idazle guztiai, Euba'ko talde onetan langille diarduenai.

Atera ikas-liburu barriak eta ikastoletan ikasi bear diran gai guztiai buruz.

**OLAZAR'tar Martin'ek**